

egunekoa

Patxi Zabaleta

(Idazlea)

Jimeno Jurioren emaitza

Jose Mari Jimeno Juriok bere bizian zehar egindako emaitza oparoaz beterik daude egunkariak hilberria den egun hauetan. Halere, Eusko Ikaskuntzak edo Euskal Herria Irratiak edo Sabino Arana Fundazioak eta abarrek opari edo eskainitako omenaldiek ezin dute ordezkatu herri honek betiko zor dion esker ona.

Bere bizitzaren historiak adierazten duen bezala, langile nekaezina zen. Beti lanerako prest ez ezik, beti lanean ari zeko adoretzu. Hori zen Jose Mari Jimeno Jurioren ezaugarrietako bat, bere adorea. Baina beste ezaugarri bat aipatzekotan, zera esan beharko genuke, egiaren zale izatea, alegia. Eta jokabide horrek liburu zail bezain garrantzitsuak egitera bultzatu zuen. Hona bere lan batzuen bilakaera eta adibideak:

Navarra nunca dijo no al Estatuto izena du bere liburu batek. Jakina den bezala, Bigarren Errepublikako lehendabiziko urtean Lizarrako Estatutua onartu zuten lau probintzietako udalek gehiengo handi batez. Baina estatutu hura ez zen inoiz gauzatu. Urtebete beranduago, 1932an, Iruñeko Gaiarre antzokian Nafarroako udaletako ordezkariak batzartu eta gaitzetsi egin zuten Errepublikako konstituzio ondoreko estatutua. Zer gertatu zen bitartean? Gorabehera bat baino gehiago eta besteak beste Nafarroako eskuinaren zatiketa eta jarrera aldaketa. Baina baita ere udaletako ordezkari batzuk saldu egin zirela, besteak beren udaletik zekarten aginduari uko edo tranpa egin ziotela, tartean argudio erlijiosoak eta diplomatikoak nahasi zituztela. Jimeno Juriok udalez udal ibili zen eta arakatu egin zuen herriaren ordezkarietaz erabakitakoa. Eta liburuaren izenburuak dioen ondorioa ateratzen da.

Nafarroan gerratean gertatutako sarraskia, hilketak eta mendekuak ere banaka-banaka aztertu behar ziren, eta horixe zen herriz herri, udalez udal eta

JIMENO JURIOREN LANA

Ez da soilik politikaren inguruko zereginetan garatu, baizik eta toponimiako bilketa lanetan edo euskarak Nafarroan izan duen mendeetako atzerakadan

PERTSONA ZUHURRA

Ez zuen inoiz bere Artaxoako jatorria ahazten eta Nafarroako erdialdekoek duten zuhurtasun tinkoarekin jokatzeko

elizaz eliza Jimeno Juriok beste batzuekin batera egin zuena.

Baina Jimeno Juriok ez da soilik politikaren inguruko zereginetan garatu, baizik eta toponimiako bilketa lanetan edo euskarak Nafarroan izan duen mende eta mendeetako atzerakadako kondaira samin baina lekukotasunez betean.

Hori guztia, gainera, Jimeno-Juriok bitarteko gutxiarekin eta maiz ezer gutxiaren truke egin zuen; agian horrelako lanik ezin delako diruz ordaindu.

Jose Mari Jimenok ez zuen inoiz bere Artaxoako jatorria ahazten, eta Nafarroako erdialdeko gizakiek duten zuhurtasun tinkoarekin jokatzeko. Patxadaz. Denbora beti zuhurtasunaren alde dagoela jakinaren gainean. Oker ez banago, bere lehendabiziko liburuak *¿Dónde tuvo lugar la batalla de Roncesvalles?* izenekoa da. Hogeiren bat urte beranduago Baionako kalonjea eta berez Doniane Zaharrekoa zen Piarres Narbaitzek idatzitako *Orria* izeneko liburuan erantzun egiten zaio Jimenoren tesiari. Jimeno-Juriok, ordea, beste hamarren bat urte beranduago erantzun zion Narbaitzi, *Principe de Viana* aldiz-

karian argitaratutako azterketa luze eta mamitsu batean: *El mito del camino alto de Roncesvalles*. Zalantzarik gabe, Orreagako hiru edo lau guduen historiak daude Iruñeko erresumaren sorreran eta Vasconiako dukerriarekin izandako gatazka eta gorabeheren historian. Iruñeko erresuma hura baita, gero Nafarroa izena hartuko zuena, Euskal Herriaren estatua zortzi mendez izandakoa.

Baina gu txundituta gelditu izan bagara Jose Mari Jimeno-Jurioren lan eta zereginekin, kontu nezake ere agian bere sena adierazteko balio lezakeen gertakari xume bat. Behin, orain dela hogeita zortzi urteko udara partean, Artaxoako *zerkoa* ikustera joan ginen, eta hango harresien barneko eraikuntza batean bizi zen aitona xahar batekin hizketan aritu ginen. Esan zigun anarkista zela, CNTkoa izandua, lurrak lantzen duenarena izan beharko lukeela defendatu zuen, eta gero beti gogoan dudana zerbait aipatu zigun, zera, behe-joandako harriak ez direla gora itzultzen; adierazi nahirik alegia Artaxoako behe parteko herria goiko harresietako harriekin eraiki zutela. Hori dena esan ondoren eta lauogeiren bat urte hurbil zituela ikusirik, zera aipatu genion: «Agian zure aitona-amonek euskaraz jakinen zuten, ezta?». Eta berak orduan tinko eta larri: «Politikaz ez dut mintzatu nahi». Jose Mari Jimeno Juriok aipatu nion gertaera xume hori, eta berak ezagutzen omen zuen aipatu aitona hura eta orduan horrelako zerbait ahoskatu zuen: «Izua ez da gizaldi oso batean uxatzen ahal».

Hangoa zen, hemengo da, eta bere emaitzak betikoak dira. Agian bi ohar, berak esanen lukeen bezala, bi ohar txo: Itxoiten jakin behar da eta izua gaitzitzen. Patxadazko adorea. Agian gure herriak beharko lukeen jokabide eredu.

zutabea

Maritxu Lopepe

Goxoki bizi

Euskarik Erkidegoko parlamentari zenbait Baxenabarre eta Zuberoan gaindi ibili dira aste honetan. Gure barnealde honetako errealitateen ezagutzeko etorriak zirela, egoera sozioekonomikoaren berri eman zaie.

Beltza, larria, pesimista... ez dira hitz alaiak erabili gure egunerokotasunaren aipatzeko. Hala nola biztanleria apaltzen eta zahartzen ari dela, gizon eta emazteen arteko desoreka handia dela, garapen ekonomikoaren abiadura, garapena den eskualdeetan, apala dela, etab. «Hala ere hemengo jendea goxoki bizi da», komentatu du lapurtar hautetsi batek irriño batekin.

Eta hala da. Bi herrialde hauetan bizi diren jende gehienak lasaiki bizi direla iduri du. Ingarumen paregabe batean, biziko gorabeheren kudeaketa eraginkorra plantatzen dute, gauza baikorrak gozatuz eta ezkorrak egin ahala ontsa jasanez. Laborari, langile edo ofiziale dira, lana badute, eta ondorioz arrangura bat gutiago, hiri-ko estresetik urrun izanez.

Egoera kasik idilikoa, beraz, baina gero eta jende guttiagok bizitzen dutena, zoritxarrez. Alabaina, lanik ez duena ez da barnealdean egoten, eta gehienetan gazteen kasua da. Bizia eta dinamika guzia berekin eramaten dute, barnealdearen kaltean. Herri husteen erantzun gisa, kanpotarrak heldu dira etxeak erosteko, nork zein karioago, baina herriko bizian sekula parte hartu gabe.

Kostaldetik so egin, eta usu irrigailu dira Ezte-renzubi, Atharratze edo Urepele *zokoan* pasatzen diren gauzak. Alta, hor gaindi, baita behe-ago ere, bizitzea deliberatzen duten gazteek irria baino gehiago goresmena merezi dute. Etxe eta herriaren biziraupenaren premia gogoan, lekuak mugimendutsu atxiki nahi dituzte, eta ez bakarrik onddo sasoi edo mendiko aro diren egunetan.

Barnealdeko bizimoduaren goxatzeko parada ukan behar lukete jende gehiagok. Horretarako indarrak egin behar dira, bai norberarengatik, bai egitura publikoengatik. Lekuko enpresa ttipien sortzea sustatu behar da azkarki, lurraren kudeaketa hurbiletik zaindu, etab. Hautetsi eta kolektibitateen lana da. Baina usu akuilatzaileak behar dituzte, beste gai zenbaitetan burua gaitzen baitaie ardura, herri elkargoko lehendakarietako lehiaketan, besteak beste.

Jenderik gabe etorkizunik ez, eta barnealderik gabe kostalderik ez, dio erran zaharrak. Ez?

seiko urrea

Mattin Irigoien



Ezintasuna ondare

Iragan asteko ene ondare solasak, biharamunean, arras haratago zoan adibidea ukan zuen Mithirinan. Kabalkada-tobera bat antolatua zuten dantza taldea habi eta airatze-eremu izanik. Urte hauetan badira dantza taldetik abiatu diren erdi berregite, erdi berranimatu ikusgarri horietarik. Tobera aldarrikatzen dute, atzizki gisa bada ere. Existentziak tobera izateko sor seinalea falta dute alta, ez baitira jendarte in-

rosten duen eskandalu baten parodia axolagabetik abiatzen, baina soilik *besta pollit baten elgarrekin* muntatzeko duten gutiziatik. Horrela, ekitaldiaren funtzio soziala hurbilago da iragan mitiko baten laudatzearekin, bere betierekotasun baloreekin eta hein bateko haurtze kutsuarekin, ezinez eta *hic et nunc* egin daitezkeen biziko galdeen planteatzearekin.

Ereduak badira, eta hurbilena pastora-

larena da, lehiaketa dirudien herri ttipien urguiluaren espresio hori. Hor ere, traje-dia deitu izanagatik, ura ahatearen luma gainetik lerratzen den bezala lerratzen baita gure eguneroko galderen tratamendua; eginak direlarik. Balira ere ez dira ikusten ahal, gaia beste bat delakoz: iraganean zintzilikatzen dugun gure betierekotasunaren goraiapatzea, ondare izoztu bat. Ja galduta den mundu idiliko hori berregiten ez zaigula ahortzi frogatzea... Eta solasgaia modernotasunaren jantziz bezititzea bada —kreazio bat egitean gure buruari uzten diogun azken arteka— iragan hori gaur ere bizi dugula frogatzeko da, gure itzalaren ipurditik buztanen korapilatzen ari bagina bezala...

Baina Mithirinatik pozik itzuli naiz etxera, xarma berezi bat aurkitu baitiot emankizunari. Ezaugarri hauek denak izateaz gain, tobera gisa zen antzerki partean, etengabe errepikatu zaigu ezin zutela toberarik muntatu taldearen kontsensu eskasarengatik eztabaida gaiari lotzean, hots biziko gaiak tratatzean! Kontsensurik ez gatazka ikusteko, gatazkarik ez kontsensua egiteko. Izoztuak gure lagunak! Eta umorez aitortzen gainera, azken finean 11 urteetako ume batzuen eskola bestako istorio bat antzeztuz. Zein eder aitortza, ustegabe-koa (menturaz berentzat ere), plazan mintzatzeko ezintasunetik datorrela ondarea... Krudela ere ez? Hauek egiteaz gain, erraten baitute!